



Eskubide kulturalak



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eskubide kulturalak

Bilakaera eta aplikazioa

0 Aurkezpena

1 Ibilbide historiko laburra

- 1.1. Tresna arautzaile orokorrak
 - NBEren jarrera
 - Europar Batasuna
 - Estatuko esparrua
- 1.2. UNESCO
- 1.3. Friburgoko Adierazpena

2 Esparru teorikoa

- 2.1. Eraketa-prozesua
- 2.2. Kontzeptu irekia
- 2.3. Oinarritzko gaiak
 - Banaezintasuna eta interdependentzia
 - Dimentsio individuala eta dimentsio kolektiboa
 - Unibertsaltasuna eta aniztasuna
- 2.4. Lotuta dauden eskubideak

3 Bizitza kulturean parte hartzeko eskubidearen gailentasuna

- 3.1. Berehalako baldintzak eta betebeharrak
- 3.2. Parte hartzeko eskubidearen esanahi hirukoitza
- 3.3. Kulturarako irispidearen oztopoak
 - Hurbiltasuna
 - Kapital kulturala
 - Ekonomikoak

4 Eskubide kulturalen aplikazioa

- 4.1. Ondorioak
- 4.2. Kulturari eta eskubide kulturei buruzko legeen analisia
 - Costa Rica
 - Ekuador
 - Mexiko
 - Nafarroako Foru Komunitate
- 4.3. Aplikaziorako alderdi funtsezkoak

5 Ondorio gisa

Eranskinak

- Costa Rica: Eskubide kulturalen lege orokorraren proiektua (2016)
- Ekuador: Ekuadorreko Kulturaren Lege Organikoa (2016)
- Mexiko: Mexikoko Kultura eta Eskubide Kulturalen Lege Orokorra (2017)
- Nafarroako Foru Komunitatea: 1/2019 Foru-Legea, Nafarroako Eskubide Kulturei Buruzkoa

0_Aurkezpena

Eskubide kulturalak kultura-politiken nazioarteko agendaren parte dira. Azken hamarkadan, aurrerapen esanguratsuak lortu dira eskubide kulturalak garatzeko, NBEren barnean zein esfera akademiko, juridiko eta politikoetan. Hausnarketa anitz dago eskubide kulturalen inguruan. Horiek guztiak bat datoz funtsezko alderdietan, baina desberdin aplikatzen dira. Era berean, aurrera egin da legegintzaren eremuan eta eskubide kulturaleri buruzko legeak onartu dira Iberoamerikako zenbait estatutan eta, berriki, Nafarroako Foru Komunitatean.

Gaiak interesa pizten du. Izan ere, funtsezko eskubideak izanik, behar-beharrezkoa da begirada politikoa egitea kulturari, zentzurik sakonenean, eta horrek politikak garatzera garamatza, kontuan hartuta kulturak eta beste balio batzuek elkarrekin duten lotura, hala nola askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna. Lotura estua, inondik ere, xedeagatik baitira funtsezko eskubide. Hori da erronka. Eskubideok baliatu eta bermatzeko zailtasuna.

Baina, gai nagusia aipatutakoa izan arren, ez da garrantzi gutxiagokoa argitzea zeri dagozkion, zertaz diharduten, zertaz ari garen eskubide kulturalak aipatzen ditugunean. Zorionez, NBEk azken urteetan egindako lanari esker, zehatzago dakigu zein diren kategoria horretan sartzen diren eskubideak. Izan ere, eskubideak aplikatu ahal izateko, sailkatu eta zehaztu egin behar dira. Bestela, adierazpen hutsean geratuko lirateke, eta eraldatzeko ahalmena galdu. Horiek horrela, ekintza positiboak behar dira, eskubide kulturalak errespetatu, babestu eta gauzatu daitezzen. Hori da gaur egungo funtsezko erronka.

Txostenak lau kapitulu ditu, eta epilogo bat, konklusio moduan. Lehenengo kapitulua eskubide kulturalen historiaren laburpen bat da. Bigarrenak esparru teorikoa definitzen du: nola eraikitzen diren, nola ulertzen diren eta zeintzuk diren haien oinarriak. Hirugarrenak bizitza kulturean parte hartzeko eskubidea jorratzen du, eskubide multzoaren funtsezko ardatza izaki. Laugarrenean aztertzen da eskubideok zer-nola aplikatu kultura-politiketan. Amaitzeko, dekalogo bat ematen da, eskubide kulturalak gauzatu ahal izateko kontuan hartu beharreko funtsezko elementuak biltzen dituena. Kulturaren Euskal Behatokiak gai honen inguruan egindako lehenengo txostena da. Hala ere, beste ikerketa batzuk ere erabili dira eskubide kulturaleri buruz testu honetan ematen den ikuspuntua osatzeko; esaterako, *Kultura eta jasangarritasuna*, *Umeak ere kulturazale*, *Kulturaren eta pobreziaren arteko erlazioa* eta *Kulturaren balio publikoa*.

1 Ibilbide historiko laburra

Kapitulu honek eskubide kulturalen bilakaera historikoa aurkezten du. Horretarako, nazioarteko hainbat tresna arautzaile aztertzen ditu, tartean, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, eskubide kulturalak lehen aldiz aipatzen dituena, eta Friburgoko Adierazpena, eskubideok argitzeko lan-prozesu baten emaitza dena.

Informazioa zabaltzeko, l. eranskinaren konparazio-taula kontsultatu daiteke. Taula horretan biltzen dira eskubide kulturaleri buruz arautegi nagusietan egiten diren aipamenak.

1.1 Tresna arautzaile orokorrak

NBEren jarrera

1948ko abenduaren 20an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala** onartu zuen. Adierazpen horren 27. artikuluan ezartzen da eskubide kulturalen lehen berme unibertsala: «Pertsona orok du eskubidea elkarteko kultur ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzia aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko».

Giza eskubideak hainbat kategoriatan banatzen dira: eskubide zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak. Eskubide horiek, Adierazpen Unibertsalean ez ezik, nazioarteko bi lege-tresna gehiagotan daude jasota, 1966an onartu eta 1976an indarrean jarri zirenak, hain justu ere, eskubideon izaera zehazteko helburuz, batez ere, inplementazio-bitartekoei begira: **Eskubide Zibil eta Politikoaren Nazioarteko Ituna** (EZPNI) eta **Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna** (EESKNI). Zehazki, EESKNIren 15. artikulua kulturaren berme juridikoaren ardatza da, funtsezko giza eskubideen aldetik.

Garrantzitsua da adieraztea giza eskubideen kategorien araberako banaketak ez dakarrela inolako hierarkiarik edo lehentasunik haien artean. Berez, aipatutako itun biek hitzaurrean adierazten dute giza eskubide guztiak elkarri lotuta daudela, banaezinak direla, elkarren mendekoak eta garrantzi berekoak. Hala ere, eskubide ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ez daude eskubide zibilak eta politikoak bezain garatuta, besteak beste, hainbat urtez «bigarren mailako eskubidetzat» hartu izan direlako, beren formulazioaren zehaztasun falta, izaera programatikoa eta auzitegien aurrean baliaraztearekin lotutako arazoak direla eta. Gainera, ulermen-zailtasunak daude hala eskubideen edukiari nola estatuen ezartze-betebeharrei dagokienez; hala ere, azpimarratzekoa da eskubideon aplikazioa errazteko ahalegina, bi alderditan: eskubideen eduki arautzailea argitzeko ekarpenak, eta estatuen betebeharrak zehaztekoak. Nabarmentzekoak dira, halaber, eskubideok ezartzeko egin diren ekarpenak hala esparru akademikotik nola EESKNIren tresnen bitartez; batez ere, aditu independenteen txostenak eta Ohar Orokorrak.

2005ean, **17. Ohar Orokorra** onartu zen. Produkzio zientifiko, literario edo artistikoen egile izateagatik pertsona orok dagozkion interes moralak eta materialak babestuta izateko duen eskubideari buruzkoa da, Itunaren 15. artikuluan 1. paragrafoak (c apartatua) jasotzen duena.

Orain hamar urte, 2009an, Genevan onartu zen **21. Ohar Orokorra**, EESK Batzordearena, bizitza kulturalan parte hartzeko eskubideari buruzkoa. Ohar horren xedea da EESKNren 15. artikuluan esanahia zehaztea. Testu garrantzitsua da, fokua eskubide kulturaletan jartzen duelako. Bitarteko horren bidez, juridikoki loteslea ez izan arren, Batzordeak bere iritzia interpretatiboa eman zuen Itunak aintzat hartutako eskubideen edukari eta irismentari buruz. Halaber, gerta daitezkeen urraketak identifikatzeaz arduratzen da. Oharraren errelatorea Jaime Marchán Romero izan zen.

2009an bertan, Giza Eskubideen Kontseiluak **10/23 ebazpena** onartu zuen, eta prozedura berezi berri bat ezarri, giza eskubideen arloko aditu independentea izenekoa. Aditu horrek hiru urteko agintaldia dauka, gaur egunera arte luzatuz joan dena. Azken luzapena 2018ko martxoan izan zen. Hamarkada honetan, Farida Shaheed eta Karima Bennouna izan dira aditu independenteak. Adierazi denez, haien txostenek ekarpen esanguratsua egin diote eskubide kulturalari buruzko hausnarketari.

Europar Batasuna

Eskubide kulturalak ez daude sakon jasota ez Europar Batasunaren testuetan, ez eta estatuen konstituzioetan ere. Sakabanatuta eta mugatuta agertzen dira, elkarren arteko loturarik gabe. Ez dira berariaz aitortuta ageri.

Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutunak (Niza, 2000; 2007an egokitua), hezkuntzarako eskubidea eta artegintzan eta zientzia-ikerketan askatasunez jarduteko eskubidea jasotzen ditu, bai eta Europar Batasunak «kultura-, erlijio- eta hizkuntza-aniztasuna» errespetatzea ere. Hitzaurrean adierazten duenez, «Batasunak balio erkide horiek zaintzen eta sustatzen laguntzen du, betiere, Europako herrien kultura eta tradizio anitzak errespetatuta». 13. artikuluan xedatzen du «askatasunez jardun daitekeela artegintzan eta zientzia-ikerketan» eta 22. artikuluan ezartzen

duenez, «Batasunak kultura-, erlijio- eta hizkuntza-aniztasuna errespetatzen ditu». Aipatutakoez aparte, beste aipamen orokor batzuk nabarmentzen dira Europa mailan. Horien artean daude 1954ko Europako Kultur Hitzarmena, Europako Gutun Sozial berrikusiaren 30. artikulua, 1992ko Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna edo Europar Batasunaren Kontseiluak 2007an egindako Europako Kultura Agendari buruzko ebazpena.


Labur esanda, definizio eta zehaztasun eza oztupo dira eskubideok babestuko dituen sistema juridiko oso bat garatzeko.

Estatuko esparrua

1978ko **Espainiako Konstituzioak**, eskubide kulturalak aipatzen ez dituen arren, aitortu egiten du herritarren babesak dimentsio kulturala duela, hala jasotzen baitu hitzaurrean. Horrez gain, 44. artikulua bizitza kulturalan parte hartzeko eskubidea aitortzen du, eta 48. artikulua gazteek gizartearen ekintzetan duten partaidetzari eta inplikazioari buruz hitz egiten du, bizitza kulturala barne hartuz. Era berean, 148. artikulua ezartzen du autonomia-erkidegoek eskumenak har ditzaketela alor hauetan: eskulangintzan; museoetan, liburutegietan eta musika kontserbatorioetan; monumentu-ondarean; eta kulturaren, ikerkuntzaren eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoko hizkuntzaren irakaskuntzaren sustapenean. Eta 149.1.28. eta 149.2. artikuluek xedatzen dutenez, Estatuak bere gain hartzen ditu kulturari buruzko eskumen esklusiboak, autonomia-erkidegoen kudeaketari kalterik egin gabe.

1979ko **Euskadiko Autonomia Estatutuak** 9. artikuluan adierazten du Euskadiko botere publikoek herritar guztien partaidetza bideratuko dutela politika, ekonomia, kultura eta gizarte bizitzan. Kultura alorreko eskumenen banaketari dagokionez, nahikoa irekia da eta aukera ematen die erakunde ezberdinei aldi berean zerbitzu kulturalak eskaintzeko eta kulturaren hedapenean eta sustapenean parte hartzeko. Arauen aldetik, ondare kulturalaren babesa da gehien definitutako alderdia.

1_ Aditu biek egindako txosten eta dokumentu guztiak **esteka honetan** daude.



1.2 UNESCO

Eskubide kulturalak UNESCOk onartutako zenbait tresna arautzailetan jasota daude, hitzarmen, adierazpen eta gomendio gisa. Horietako lehena da Egile Eskubideari buruzko Hitzarmen Unibertsala, Egile Eskubideari buruzko Gobernuarteko Konferentzian onartua 1952an, eta 1971an berrikusia. Geroztik, 20 tresna baino gehiago onartu dira, hainbat eskubide babesten eta garatzen dituztenak; besteak beste, alderdi hauen inguruan: hezkuntza, nortasun kulturala, informazioa, bizitza kulturean parte hartzea, sormena, aurrerabide zientifikoa baliatzea, egileen interes material eta moralen babesa eta nazioarteko kooperazio kulturala. cultural internacional.

Eskubide kulturalen kontzeptuaren garapenari lotutako ekarpen bat ondare kulturala babesteko eskubidearen aldarrikapena dugu, bai eta gai horri buruzko tresna arautzaileen sorta bat prestatzea ere.

Berrienak dira **Kultura-aniztasunari buruzko aldarrikapen unibertsala**, UNESCOko Biltzar Nagusiak 2001ean onartu zuena, eta **Kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko UNESCOren konbentzioa**, 2005ean onartu zena.

Adierazpenean atal espezifiko bat dago kultura-aniztasunaren eta giza eskubideen arteko harremanari buruz. Bertan zehazten denez, giza eskubideak kultura-aniztasunaren berme dira (4. artikulua) eta eskubide kulturalak kultura-aniztasunaren esparru edo testuinguru egokia dira (5. artikulua):

Kultura-eskubideak giza eskubideen zati dira, eta, beraz, unibertsal, bereiztezin eta elkarren arteko menpekoak. Sormen-aniztasuna garatzeak kultura-eskubideak osoki betetzea eskatzen du, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 27. artikulua, eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmeneko 13. eta 15. artikuluek dioten bezala. Beraz, pertsonak orok nahi duen hizkuntza egiteko, eta bere lana sortu eta zabaltzeko aukera izan behar du, eta bereziki bere ama-hizkuntza. Pertsonak orok norberak hautatu kultura-adierazpeneta parte hartzeko aukera izan behar du, berak hautatu kultura-jarduerak praktikatzeko aukera, betiere giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetuak ezartzen dituen mugen barruan.

Unescoren testuez gain, kultura-alorreko funtsezko beste erreferentzia batzuek ere eskubide kulturalak aintzat hartzen eta babesten dituzte; hala nola, 2006ko **Iberoamerikako Kultur Gutunak** edo **Kulturaren 21 Agendak**.

1.3 Friburgoko Adierazpena

Eskubide Kulturalari buruzko Friburgoko Adierazpena nazioarteko aditu talde baten («Friburgo Taldea») 20 urteko lanaren emaitza da. Talde hori Friburgoko (Alemania) Unibertsitateko Etika eta Giza Eskubideen Diziplinarteko Institutuan sortu zen. Taldekide batzuen kontsulta eta lanei esker haien artean, besteak beste, UNESCO, Europako Kontseilua eta Frankofoniaren Nazioarteko Erakundea, adierazpenaren lehenengo zirriborroa argitaratu zen 1998an, UNESCOrekin batera. **Gaur egungo bertsioa** gizarte zibilaren ekarpenen emaitza dugu, zenbait kontinentetako behatzaileen lanari esker hobetu dena. Adierazpen hau eskubide kulturalak argitzeko ahalegin bat da. 2007an aurkeztu zen Friburgoko Unibertsitatean eta Nazio Batuen Genevako jauregian.

Adierazpena egiteko arrazoiak dokumentuak berak azaltzen ditu: eskubide kulturalak argi eta garbi zehaztu behar dira, horiek baztertuta giza eskubideen unibertsaltasuna eta zatiezintasuna ahultzen direlako. Saiakera bat da tresna arautzaile ezberdinetan sakabanatuta dauden eskubide kulturalak biltzeko eta argitzeko, haien garrantzia erakusteko eta gainerako giza eskubideen dimentsio kulturalak nabarmentzeko.

Lau zatitan egituratzen da: kontuan hartuzkoak; printzipioak eta definizioak; eskubide kulturalak (kultur nortasun eta ondarea, kultur taldeei aipamena, kultur bizitza eskura izatea eta parte hartzea, hezkuntza eta trebakuntza, informazioa eta komunikazioa eta kultura-lankidetzak); eta horiek gauzatzearekin lotutako alderdiak (governantza, ekonomia eta erantzukizuna).

2 Esparru teorikoa

Kapitulu honetan kokatzen da eskubide kulturalak eraikitzekeo esparru kontzeptuala. Giza eskubideen bilakaeraren teoriak bide ematen digu eraketa prozesu progresiboa ulertzeko, Frantziako Iraultzan hasi baitzen. Hori da, hain zuzen, abiapuntua eskubide kulturalen irismenaren eta horien printzipioen inguruko hausnarketa egiteko. Hortik planteatzen da eskubideok ulertzeko eta formulatzeko moduari buruzko analisia.

2.1 Eraketa-prozesua

Giza eskubideen formulazioa eskubideak eratzeko prozesu progresiboaren emaitza da, Frantziako iraultzaren goiburuekin bat etorrira: askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna.




Giza eskubideen hiru belaunaldien arteko banaketaren arabera (Vasak, 1979), lehenengo belaunaldikoak askatasunerako eskubidean oinarritzen dira; bigarren belaunaldikoak, berdintasunerako eskubidean; eta hirugarren belaunaldikoak elkartasunean. Giza eskubideen belaunaldien kontzeptuari dagokionez, esanguratsua da eskubide batzuek ez dituztela besteak ordezkatzen, baizik eta belaunaldi berriek aurreko eskubideak birkokatzen dituztela, testuinguru berrietara egokituta.

Lehenengo belaunaldikoak dira pertsonen askatasunari eta autonomiari berez lotutako eskubide zibil eta politikoak. Pertsonari berezko zaizkio, eta beraz izaera positiboko arauak ezin dituzte urratu. Horrek berez dakar onartzea, askatasun hori baliatuko bada, esparru batzuk babestu behar direla botere publikoaren esku-hartzetik, norbanakoak baitu boterea haietan. Beren helburua pertsonak babestea da, Estatuaren esku hartzerik gabe. Hortaz, berehala aplikatzeko eskubide negatiboak dira eta Estatuaren abstenitu beharra ezartzen dute. Bat datoz tradizio liberalarekin, Estatuak gai publikoetan gutxieneko esku-hartze izatea defendatzen baitu. Frantziako iraultzan aldarrikatu ziren, eta konstituzioetan sartu XIX. mendean zehar. Era unibertsalean, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak aintzat hartu zituen lehenengo aldiz, 1948an (3.-21. art.) eta geroago, EZPNik. Ilustrazioko teorietan eta kontratu sozialaren teorietan oinarrituta, pertsona ororen duintasunerako eskubidea, adierazpen-, elkartze- eta kontzientzia-askatasuna, bidezko epaiketa izateko eskubidea edo sufragio-eskubidea babesten dituzte. Lehenengo belaunaldiko eskubide kulturalen adibide batzuk dira sormen-, arte-, zientzia- eta komunikazio-askatasuna.

Bigarren belaunaldikoak dira eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak. Berdintasun-printzipioari lotzen zaizkio, eta pentsamendu humanista eta sozialistaren tradizioan oinarritzen dira. Kasu horretan, botereak arauen bitartez esku hartu behar du, edo politika aktiboak bultzatuz, ez bakarrik eragozpen ez izateko, baizik eta eskubide horiek baliatzea ahalbidetzeko, kontuan hartuta pertsona guztiak ez direla sortzez berdinak. Prestazio-eskubideak dira. Horrenbestez, gizarte-desparekotasunak konpentsatzeko, beharrezkoa da Estatuak esku hartzea, irispide-berdintasuna bermatzeko. Eskubide positiboak dira, apurka-apurka aplikatzekoak. Horien artean, aipatzekoak dira etxebizitzarako, hezkuntzarako, kulturarako eta osasunerako eskubideak. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak ere jasotzen ditu (22.-27. art.), eta EZPNik ere bereganatu ditu. Kultura eskura izateko eskubidea (kulturarako irispidea) bigarren belaunaldiko eskubide kulturalen paradigma dugu. Adibide gisa, EESK Batzordearen 21. Oharrak berdintasuna bermatzeko babes berezia behar dituzten pertsonak eta komunitateak zehazten ditu: emakumeak, haurrak, adinekoak, desgaitasuna duten pertsonak, pobrezian bizi diren pertsonak...

Hirugarren belaunaldikoak elkartasunaren printzipioan oinarritzen dira eta herritar guztiei eragiten diete. Beraz, eragin unibertsalekoak dira. Lehenengo belaunaldiko eskubideek pertsona abstraktua dute xede, ezaugarririk gabe; kasu honetan, ordea, pertsonaren zirkunstantziak azpimarratzen dira. Behar berriak dituen testuinguru da, eta herritartasun-eredu aurreratuak ezartzea ahalbidetzeko eskubide berriak garatu behar dira. XX. mendearren bigarren erdialdean zehaztuz joan ziren, diskriminazioa pairatzen zuten kolektiboak eskubide legitimoak eskatzen hasi zirenean. Hona hemen hirugarren belaunaldiko eskubideen adibide batzuk: ingurumenerako eta garapen jasangarrirako eredu berriak bilatzeko eskubidea; bakerako eta gatazka armatuetan esku hartzeko eskubidea; etnia-, erlijio- eta hizkuntza-gutxiengoen eskubideak; edo kontsumitzaileen eskubideak. Aniztasun kulturala edo kultura-ondarearen kontserbazioa esparru horretan sartzen dira. Era berean, aipatzekoak dira 21. Oharraren zehaztapen batzuk, gutxiengoei, migratzaileei eta herri indigenei buruzkoak.



Gaur egun, eskubideen laugarren belaunaldia dira eztabaidagai; XXI. mendeko erroka; lehenengo, bigarren eta hirugarren belaunaldiko eskubideen inguruan berriz hausnartzea, sozietate teknologikoaren testuinguru digital berria kontuan hartuta.

2.2 Kontzeptu irekia

Eskubide kulturalari buruzko lehendabiziko hausnarketa da kontzeptu ireki bat dela. Hori dela eta, plurala erabiltzen da kulturari loturiko eskubide izaeraz ezberdinen multzo zabala izendatzeko. Multzo horretan sartzen dira askatasunari, aintzat hartzeari, parte hartzeari eta prestazioari buruzko eskubideak, besteak beste.

Irismena kulturaren terminoa interpretatzeko moduaren araberakoa da: modu murriztailean, artegintzaren edo sormenaren inguruko ekintza jakin batzuetara mugatuta; zentzu antropologikoan, jardueren, balioen, ezagutzen eta praktiken multzoa izango da. Ikuspegi zabal batetik, hezkuntzarako eta informaziorako eskubidea ere barnean hartzen ditu.

Marchánek (2010) egindako txostenak adierazten duenez², EZPNik ez du «kultura» terminoa definitzen. Baina bere iritziz, definizio falta horregatik eta «bizitza kulturala» terminoaren erabilerari esker, kontzeptuaren zabaltasuna eta izaera ebolutiboa bermatu dira. Testuinguru ezberdinetan aplikatzeko prozesu dinamiko gisa ulertzen da. 21. Ohar Orokorrean, Batzordeak hauxe adierazten du: «Kulturaren kontzeptua ez da ulertu behar adierazpen isolatuen edo konpartimentu estankoen multzo gisa, baizik eta gizabanakoen eta komunitateen prozesu interaktibo gisa, bere berezitasunei eta helburuei uko egin gabe, giza kulturaren adierazpide dena».

Eskubide kulturalaren definizioari dagokionez, hauxe dio Marchánek: «Ikuspuntu juridiko hutsetik, esan liteke eskubide kulturalak direla Adierazpen Unibertsalak eta gainerako giza eskubideen inguruko nazioarteko tresnek (bereziki, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Itunaren 15. artikulua) aintzat hartzen dituzten kulturari buruzko eskubideak. Beste modu batean esanda, kulturari aplikatutako giza eskubideak dira eskubide kulturalak. Baliteke ikuspegi hori nolabait mugatuta egotea, baina abantaila bat dauka: eskubideen eduki arauemailea, kontraktuala, nabarmentzen duela. **Kulturarako eskubidea da juridikoa, eta ez kultura.** Edonola ere,

uste dut desegokia dela kultura lege-terminoetara itzultzea, berez irekia behar duena murriztuko luke-eta. Izatez, legala bainoago, kontzeptu antropologikoa da kultura. Gainerakoan, Estatuaren erantzukizun guztiak ez dira eskubide-terminotan adierazten. Izan ere, gizarte demokratikoak interes publikoak ere kontuan hartzea eskatzen du, kulturaren arlokoak barne, zentzu zabalean».

NBEren eskubide kulturalen arloko aditu independenteez aldizka azpimarratu dute beren xedea ez dela berez kultura edo kultura-ondarea babestea, baizik eta pertsona guztiak, bereizketarik gabe, bizitza kulturalaz gozatu eta horretan parte hartu eta ekarpenak egin ahal izateko **baldintzak** zaintzea eta horiek etengabe garatzea»³.

Hona hemen EZPNren 15. artikuluan jasota dagoen eskubide kulturalen definizioa:

1. Itun honetako estatu alderdiek aitortzen dute pertsona ororen eskubidea:
 - a) Bizitza kulturean parte hartzeko;
 - b) Aurrerapen zientifikoaren eta haien aplikazioen onurak baliatzeko;
 - c) Interes moral eta materialen inguruko babesaren onuradun izateko, interes horiek
2. Eskubide horren erabateko egikaritza ziurtatzeko, itun honetako estatu alderdiek hartu beharko dituzten neurrien artean izango dira beharrezkoak direnak zientzia eta kultura kontserbatu, garatu eta hedatzeko.
3. Itun honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, ikerketa zientifikorako eta sormen-jarduerarako behar den askatasuna errespetatzeko.
4. Itun honetako estatu alderdiek aitortzen dute onurak datozela zientzia eta kultura esparruetako nazioarteko lankidetzara eta harremanak suspertu eta garatzetik.

2_ «Eskubide kulturalak: eskubide ekonomikoaren, sozialen eta kulturalen batzordearen jardunbidea» 4. lan dokumentua.

3_ «Eskubide kulturalak. Hamargarren urteurreneko txostena» (2019ko urtarila)

Bestalde, NBEren agindu bereziaren txostenen arabera, eskubide kulturalak bereziki babesten dituzte hauek:

- giza sormena, bere aniztasun osoan, eta hura zabaltzeko, garatzeko eta eskuragarri izateko baldintzak;
- nortasun bat aukeratzeko, adierazteko eta garatzeko askatasuna, barne hartuz gizatalde jakin baten parte ez izateko eskubidea, zein iritiz aldatzekoa edo gizatalde bat uztekoa, eta hori zehazteko prozesuan berdintasun-baldintzetan parte hartzeko eskubidea;
- pertsonen eta taldeen eskubideak, nahi duten bizitza kulturalan parte hartzeko edo hari uko egiteko, eta beren jarduketa kulturalak egiteko; d) besteekin harremanak izateko eta iritziak trukatzeko eskubidea, bakoitzaren gizataldea eta mugak kontuan hartu gabe;
- arteak eta ezagutza (ezagutza zientifikoa barne) eskuratzeko eta horiez gozatzeko eskubidea, bai eta norbere kultura-ondarea eta besteen eskura izatekoa eta gozatzekoa;
- kultura-ondarearen interpretazioan, sorkuntzan eta garapenean parte hartzeko eskubidea, bai eta nortasun kulturalen birformulazioan esku hartzekoa.

Beraz, eskubide kulturalak perimetro oso zabala eta muga lausoak izan arren, erreferentziako testu arauemaileek eta gaiaren inguruan egindako txostenek aplikazio-eremuak zehaztu dituzte, funtsezko lau ardatz finkatuta: adierazpen- eta sormen-askatasuna; interes moralen eta materialen babesa eta aintzatespena; irispiderako eta parte hartzeko eskubidea.

2.3 Oinarrizko gaiak

Giza Eskubideak unibertsalak, zatiezinak eta elkarren mendekoak dira. Era global, zuzen eta bidezkoan landu behar dira, kontuan izanik guztiek dutela garrantzi berdina. Ikus dezagun horrek zer ondorio duen eskubide kulturaletan.

Banaezintasuna eta interdependentzia

Duten ahalmen eraldatzaile eta emantzipatzailea dela eta, eskubide kulturalak beste giza eskubide batzuk egikaritzea ahalbidetzen dute. Horien inguruko hausnarketak fokua jartzen du eskubideen arteko loturan, ondorengo kontzeptuetan oinarrituta: banaezintasuna eta interdependentzia.

Azpmarratzekoa da eskubide kulturalen alorreko desparekotasun edo desberdintasunak oztopo direla pertsonen eskubide zibil eta politikoen egikaritzan, bai eta garapenerako eskubidearenean ere. Horrenbestez, giza eskubideak beteko badira, ekintza positibo bat behar da eskubide kulturalen esparruan.

Dimentsio indibiduala eta dimentsio kolektiboa

EESK Batzordeak 21. Oharrean adierazitako irizpideak ezarritakoari jarraikiz, «pertsona orok» inplikazio indibiduala eta kolektiboa dauka. Horrela, bizitza kulturalan parte hartzeko eskubidea banaka edo beste pertsonekin batera gauza daiteke, bai eta ikuspuntu komunitario batetik ere.

Hala ere, garrantzitsua da zehaztea ez dela berdin eskubide batek dimentsio kolektiboa izatea, bizitza kulturalan parte hartzearekin gertatzen den bezala, eta eskubide hori kolektiboa izatea. Azken horren adibide bat herri indigenen eskubideak dira, Herri Indigenen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Adierazpenak eskubide kolektibo gisa aintzat hartzen dituenak.

Dimentsio indibiduala eta kolektiboa gutxiengoekin ere lotuta dago. Batzordearen arabera, pertsona orok bizitza kulturalan parte hartzeko duen eskubideak barnean hartzen du gutxiengoek bizitza kulturalan parte hartzeko duten eskubidea, bai eta beren kultura mantentzeko, bultzatzeko eta garatzeko ere. Beraz, estatuek gutxiengoek kultura aintzat hartzeko, errespetatzeko eta babesteko betebeharrak dute, nortasunaren funtsezko osagai den aldetik.

Unibertsaltasuna eta aniztasuna

Giza eskubideen oinarria da unibertsaltasuna, sistemak funtzionatzeko funtsezko tresna. Adierazpen Unibertsalaren 1. artikulua xedatzen duenez, «gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela». Horrek esan nahi du gizon-emakume guztiak eskubide berberak dituztela, beren bizitzaren inguruabarrak eta ezaugarri zehatzak gorabehera. Interdependentzia, zatiezintasuna, berdintasuna eta duintasuna berez lotzen zaizkio unibertsaltasunaren ideari.

Baina berdintasunean oinarritutako kontzeptu horrek talka egin dezake pertsona bakoitzak bere kultura izateko eskubidearekin, askatasunaren ideian oinarritzen baita, erlatibismo-arazo bat eraginez. Erlatibismoak kezka sortzen du; esaterako, NBERen agindu berezi bat eman zuen gai horri buruzko txosten bat egiteko. Eskubide kulturalak eta kultura-erlatibismoa bereizi behar dira. Lehenek eskubideak zabaltzen dituzte eta giza eskubideen arau unibertsalen babesa dute; bigarrenak, aldiz, eskubideak murrizten ditu kulturaren izenean, eta nazioarteko zuzenbideak ez du onartzen.

Nola bateratu daitezke printzipio biak? Aniztasunerako edo bestelakotasunerako eskubidea da zubia. UNESCOk Kultura aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsalean adierazten duenez, «kulturak forma ezberdinak hartzen ditu espazioan eta denboran zehar. Aniztasun hori gizateria osatzen duten gizarteen eta taldeen nortasunen originaltasunean eta pluraltasunean adierazten da. Trukeen, berrikuntzaren eta sormenaren iturri, kultura-aniztasuna behar-beharrezkoa da gizon-emakumeentzako, biologia-aniztasuna izaki bizidunentzako behar-beharrezkoa den bezala. Ildo horretatik, gizateriaren ondare komuna osatzen du, eta, beraz, aintzat hartu eta finkatu behar da, gaur egungo eta etorkizuneko belaunaldien onerako» (1. art.). Adierazpenak, halaber,

aitortzen du «inork ezin duela kultura-aniztasuna erabili nazioarteko zuzenbideak bermatzen dituen giza eskubideak urratzeko, ezta horien irismena mugatzeko ere» (4. art.). Modu horretan, unibertsaltasuna onartzen du.

2.4 Lotuta dauden eskubideak

Eskubide zibil eta politikoen esparruan, eskubide kulturalen testuinguruan bereziki nabarmentzeko modukoak dira iritzi- eta adierazpen -askatasuna (19. art.); pentsaera-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna (18. art.); eta diskriminaziorik ezaren, inklusioaren, parte-hartzearen eta gutxiengoek eskubideak sustatzearen printzipioak.

Era berean, azpimarratzekoa da eskubide kulturalen eta hezkuntzarako eskubidearen arteko lotura estua (EZPNren 13. eta 14. artikulua). Izan ere, azken horren bitartez transmititzen dituzte gizabanakoek eta komunitateek beren balioak, erlijioa, ohiturak, hizkuntzak eta beste erreferentzia kultural batzuk. Beraz, elkar ulertzeko eta balio kulturallekiko errespetuzko giroa lortzen laguntzen du.

Hizkuntzari buruzko eskubideei dagokienez, NBERen itun bietan eta UNESCOren esparruan jasotzen dira, oinarri honekin: hizkuntzak, komunikatzeko bidea izateaz gain, adierazpen kulturalen egitura bera dira, eta nortasunaren, balioen eta mundu-ikuskeraren eroale. Aipatzekoa da 1996ko Hizkuntza Eskubideen Adierazpen Unibertsala.

3 Bizitza kulturean parte hartzeko eskubidearen gailentasuna

Kapitulu honen xedea da bizitza kulturean parte hartzearen esanahia eta konnotazioak aztertzea. Azpimarratu behar da, Itunak eskubide kultural asko aipatu arren, bizitza kulturean parte hartzeko eskubidea gailentzen dela. Eskubide horretatik eratortzen da, hain zuzen, kulturarako irispidearena. Baina, zer esan nahi du «parte hartzeko eskubideak» bizitza kulturalaz ari garenean?

3.1 Berehalako baldintzak eta betebeharrak

EESK Batzordeak, 12. Ohar Orokorrean, informazio zehatza eskaini zien estatuei bizitza kulturean parte hartzeko eskubidea errespetatu, babestu eta bermatzeko betebeharrei buruz. Eskubide hori modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko, beharrezkoak dira ondorengo elementuak, betiere berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren oinarriaren gainean:

- **Eskuragarritasuna.** Ondasun eta zerbitzu kulturek eskuragarri egon behar dira denek disfrutatu eta baliatu ditzaten, barne hartuz erakundeak eta ekitaldiak (adibidez, liburutegiak, museoak, teatroak, zinemak eta kirol-estadioak), literaturaren eta artegintzaren adierazpen oro, partekatutako espazio irekiak, ondasun naturalak eta ondasun kultural ukiezinak (adibidez, hizkuntzak, ohiturak, sinesmenak eta historia).
- **Irisgarritasuna.** Kulturarako irispideak funtsezko lau elementu ditu: diskriminaziorik eza, irisgarritasun fisikoa, irisgarritasun ekonomikoa eta informazio irisgarritasuna. Estatuak pertsona guztiei bermatu behar dizkiete kulturaz gozatzeko aukera zehatzak, eraginkorrak eta eskuragarriak, diskriminaziorik gabe. Irispide hori landako eta hiriko guneeetara hedatu behar da, eta arreta berezia egin behar zaie desgaitasuna duten pertsonen, adineko pertsonen eta pobrezia-egoeran dauden pertsonen. Estatuak bermatu behar dute pertsona orok eskubidea izatea kulturari buruzko informazioa bilatu, jaso edo zabaltzeko aukeratutako hizkuntzan.
- **Onargarritasuna.** Eskubide kulturalak gauzatzeko neurriak dagokienez, estatuak gaian diharduten pertsonak eta komunitateak kontsultatu beharko lituzkete, kultura-aniztasuna babestera bideratutako neurriak onartzen dituztela egiaztatzeko.

- **Egokigarritasuna.** Estatuak eskubide kulturalari buruzko ikuspegi malgua bere egin, eta gizabanakoaren eta komunitateen kultura-aniztasuna errespetatu behar dute.
- **Egokitasuna.** Eskubide kulturalak dagokien testuinguruan gauzatu behar dira. Horretarako, estatuak arreta berezia jarri behar dute balio kulturala, besteak beste, ondorengo alderdiekin lotutakoetan: elikagaiak eta haien kontsumoa, uraren erabilera, osasun- eta hezkuntza-zerbitzuen eskaintza eta eraikinen diseinua eta eraikuntza.


Betebeharrei dagokienez, Batzordeak berehala aplikatzeko **gutxieneko bost betebehar** ezarri zituen 21. Ohar Orokorrean:

- 1) Generoen arteko diskriminaziorik eza eta berdintasuna bermatzea, edozein pertsonak bizitza kulturalan parte hartzeko eskubidea gauzatzeko duenean.
- 2) Pertsona orok kultura-komunitate batekin edo gehiagorekin identifikatzeko edota ez identifikatzeko duen eskubidea errespetatzea, baita aukera hori aldatzekoa ere.
- 3) Pertsona orok aukeratutako praktika kulturalak gauzatzeko duen eskubidea errespetatzea eta babestea, betiere, giza eskubideen errespetua kontuan hartuta eta hauek errespetatuta: pentsatzeko askatasuna, erlijioa eta sinesmenak, adierazpen- eta iritzi-askatasuna, gura duen hizkuntza erabiltzeko askatasuna, bakean elkartzeko eta elkartzeko askatasuna eta hezkuntza-erakundeak aukeratzeko eta ezartzeko askatasuna.
- 4) Pertsonen bere kulturarako edo beste kultura batzuetarako irispidea galarazten edo mugatzen duten oztopoak ezabatzea, bereizketarik egin gabe eta inolako mugarik kontuan hartu barik.
- 5) Gutxiengoaren, herri indigenaren edo beste komunitate batzuen kide diren pertsonen partaidetza baimentzea eta sustatzea, dagozkien legeen eta politiken formulazioan eta aplikazioan. Zehazki, parte diren estatuak haien alde aurreko baimen aske eta informatua eskuratu behar dute baliabide naturalen babesa arriskuan dagoenean; batez ere, komunitate horien adierazpen kulturala eta bizimoduarekin bereziki lotutako eremuetan.

Parte hartzeko eskubidea ez dadin edukiz hustu, eta eskubide kulturalak apurka-apurka aplikatzekoak izan arren, Batzordeak guztiek gutxieneko maila bat izan behar dutelako doktrina garatu du.

3.2 Parte hartzeko eskubidearen esanahi hirukoitza

Partaidetza testuinguru zehatz batean kokatzen da eta esanahi bikoitza dauka: parte izan eta parte hartu. Hori kontuan hartuta, bizitza kulturalan parte hartzeko eskubideak elkarren artean hertsiki lotutako hiru alderdi dauzka:



Hauxe zehazten du 21. Oharrak bizitza kulturalan parte hartzeari dagokionez:

- a) Bizitza kulturalan parte hartzeko eskubideak barne hartzen du pertsona orok eskubidea duela (bere kabuz, beste pertsonekin edo komunitate gisa) askatasunez jarduteko; bere nortasuna hautatzeko; komunitate batekin edo gehiagorekin identifikatzeko edota ez identifikatzeko, edo aukera hori aldatzeko; gizartearen bizitza politikoan esku hartzeko; bere kultura-praktikak gauzatzeko; eta aukeratzen duen hizkuntzan baliatzeko. Era berean, pertsona orok eskubidea du ezagutzak eta kultura-adierazpideak bilatzeko, garatzeko eta beste batzuekin partekatzeko, bai eta sormenez jarduteko eta sormen-jardueretan parte hartzeko ere.

b) Bizitza kulturalerako irispideak barne hartzen du pertsona orok eskubidea duela (bere kabuz, beste pertsonekin edo komunitate gisa) norberaren eta besteen kultura ezagutzeko, hezkuntzaren eta informazioaren bitartez, eta bere kultura-nortasuna osoki errespetatzen duen kalitatezko hezkuntza eta trebakuntza jasotzeko. Halaber, pertsona orok eskubidea du edozein adierazpen eta zabalpen modu informazio- eta komunikazio-baliabide teknologikoen bidez ezagutzeko; kultura-ondasunen, baliabideen (lurra, ura, biodibertsitatea) eta hizkuntza edo instituzio jakin batzuen erabilerari loturiko bizimodua izateko; eta beste gizabanakoen eta komunitateen sorkuntzak eta kultura-ondasunak baliatzeko.

c) Bizitza kulturalari ekarpena egiteak esan nahi du pertsona orok eskubidea duela komunitatearen adierazpen espiritual, material, intelektual eta emozionalen sorrerari ekarpena egiteko. Halaber, kide den komunitatearen garapenean parte hartzeko eskubidea dauka, bai eta eskubide kulturalak gauzatzeari buruzko erabakien eta politiken formulazioan eta aplikazioan esku hartzeko ere.

3.3 Kulturalerako irispidearen oztopoak

Bizitza kulturalerako irispidea izateko eskubidea berdintasunean gauzatu behar da; hau da, diskriminaziorik gabe hauek direla eta: jatorria, etnia, erlijioa, ideologia, sinesmena, genero edo sexu orientazioa, desgaitasuna, baliabide ekonomiko edo bestelako inguruabar pertsonal edo sozialak. Hori da politika aktiboen garapenari hertsien lotutako eremua. Izan ere, kulturalerako irispidean eta bizitza kulturalen parte hartzerakoan berdintasun erreala lortzeko hainbat baldintza bultzatzen ditu, berdintasunari traba egiten dioten oztopoak kenduz. Ez da nahikoa diskriminazioa saihestea; berdintasuna bultzatu behar da. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartu behar dira, positiboak barne, egoera ahulean dauden pertsonen eta taldeen inklusioa bermatzeko.

Hurbiltasuna

Hurbiltasuna gertutasun fisikoaren sinonimoa da, baina ez da horretara mugatu behar. Herritarren behar gehienak, hain zuzen, hurbilen duten eremuan asetzen dira. Berdin gertatzen da kulturako behar eta esperientziekin, tresna birtualen erabilera gorabehera, eta horrek abantailak ematen ditu kudeaketa sozialean eta kulturalen. Gertutik soilik ezagutzen dira ekintza kokatzen den testuinguruaren eta komunitatearen ezaugarriak; hurbiltasunak ematen duen ezagupenetik soilik proposa daitezke errealitate horri erantzuten dioten eta berori eralda dezaketen programak eta proiektuak.

Hurbiltasuna, gainera, gizartea egituratzeko faktore izan daiteke, gero eta desberdinagoak diren herritarrek lotzen dituelako. Gertutasun fisiko horrek pertsonen arteko elkarreragin soziala eta erakundeekiko harremanak errazten ditu eta parte izatearen sentimenduen sorrera eta komunitatearen eraketa bultzatzen ditu. Kohesio sozialeko eta nortasun kolektiboko tresna indartsua da.

Hurbiltasunak herritarrengana bideratutako sistema kultural bat sortzearekin du zerikusia; herritarrekin harreman aktiboa izatea iragartzen du, ez daitezen subjektu pasibo izan, baizik eta, kulturari dagokionez, norberaren bidea zuzentzeko gai diren eragile. Hurbiltasunak, hartara, kultura demokratizatzea errazten du –irispidea errazten duelako–, baina baita demokrazia kulturala ere, herritarrek subjektu edo objektu pasibo izatetik (kultura hartzaile edo ikusle) subjektu aktibo izatera (sortzaile, kultura eramaile) bideratzen baititu.

Hurbiltasunaren eta berdintasunaren kontzeptuari buruzko begirada zabal batek kontuan hartu behar du dimentsio digitala. Bai irispide materialaren ikuspuntutik, bai hizkuntza berri horietan alfabetatzearen ikuspuntutik, arrakala digitala saihestuta.

Kapital kulturala

Kulturala iristeko zailtasunek arrazoi konplexuak dituzten arren, faktore desberdinek eragiten diotelako elkarri, oztopo nagusietako batek pertsonen kapital kulturalarekin du zerikusia. Pertsona bakoitzaren kapital kulturala da norbere hezkuntzaren eta jasotako herentziaren eta aldeko ingurune sozial baten batura.

Kapital kulturala bereziki garrantzitsua da, kulturari buruzko ezagutza, aldez aurreko jarrera ona eta interesa sortzeko gaitasuna duelako. Kontua ez da kultura irisgarri bihurtzea urruti geratzen zaien pertsona edo kolektibo horientzat, baizik eta haiei ahotsa eta adierazteko gaitasuna ematea, jarduera artistikoa inklusiorako eremu bihurtuz.

Pertsonen gaitasunari eskaini behar zaio arreta eta behar diren tresnak eta bitartekoak jarri guztiok berezkoa dugun potentziala azaleratu eta garatzeko. Baldintza egokiak sortzea da kontua. Hezkuntzaren eta heziketa artistikoaren lekua da, sorkuntzarako espazioena, herri-kulturaren eta arte amateurraren espazioa, pertsonen adierazpen gaitasuna sustatzen duten forma esperimentalena.

Horrela, eremu horretako politika aktiboak hezkuntza-zerbitzuekin lotu behar dira, pertsonen kapital kulturalaren garapenean jar dezaten arreta, eta heziketa-proiektuak sar ditzaten kultura-programa eta -zerbitzuetan. Kultura-erakundeentzako erronka nagusietako bat izan daiteke zein modutan erantzuten dieten komunitate ezberdinen beharrei eta interesei.

Ekonomikoak

Kultura zabaltzeko politikek bokazio unibertsalizatzailea dute. Hori, ordea, beti ez da nahikoa, irispide unibertsala zailtzen duten eragozpenak egon ohi baitira. Esaterako, oztopo ekonomikoak. Zentzu horretan, diruz lagundutako prezioen, fiskalitatearen eta deskontuen politika espezifikoez, kultura-eskaintzara zein eskarira-bideratuta, horrelako oztopoak ekiditen lagun dezakete.

Kulturarako irispidea areagotzeko neurri ekonomikoak ezartzeko arrazoiak askotarikoak izan daitezke eta era berean legítimoak. Besteak beste, haien jatorria izan daiteke finantzaketa publikoak herritar askori onura egitea bermatzeko borondatea, edo inklusioarekin eta erantzukizun sozialarekin lotutako gogoeta, edo erabiltzaile kopurua mantentzeko eta areagotzeko beharra. Kulturarako irispidea handitzeko arrazoiak argi izanez gero, ekintza eraginkorrakoak diseinatu ahal izango dira.

4 Eskubide kulturalen aplikazioa

Eskubide kulturalen oinarri kontzeptualak eta juridikoak aztertu ondoren, atal honek garapen praktikoan jartzen du arreta. Gakoa da aztertzea nola eramaten diren funtsezko eskubideak kultura-politikerara.

Lehenengo eta behin, Friburgoko Adierazpena oinarri hartuta, eskubideen dimentsioak eta adierak aztertzen dira eta eskubideok garatzeko helburua duten kultura-politikekin harremanetan jartzen dira. Bigarrenik, azken urteetan eztabaidatu eta onartu diren eskubide kulturalen alorreko legeen edukiak aztertzen dira. Azkenik, eskubide kulturalen aplikazio eraginkorra gauzatzeko kontuan hartu behar diren funtsezko elementuak identifikatzen dira.

4.1 Ondorioak

Eskubide kulturalak garatzeko, zenbait dimentsio hartu behar zaizkie kontuan: nortasuna, aniztasuna, irispidea eta bizitza kulturean parte hartzea. Lehenengo eta behin, Friburgoko Adierazpenaren analisia hartzen dugu erreferentzia gisa, nazioarteko eskubide kulturei buruzko funtsezko tresnetako bat delako eta, bereziki, horiek argi eta garbi adierazteko ahalegina egiten duelako. 3.-8. artikuluek eskubide kulturalak definitzen dituzte; 9.-12- artikuluek, horiek betetzeko betebeharrak jasotzen dituzte.

Eskubide kulturalak

- 3. art. Kultur nortasun eta ondarea
- 4. art. Kultur taldeei aipamena
- 5. art. Kultur bizitza eskura izatea eta parte hartzea
- 6. art. Hezkuntza eta trebakuntza.
- 7. art. Informazioa eta komunikazioa
- 8. art. Kultur lankidetz

Obligazioak eta betebeharrak

- 9. art. Gobernantza demokratikoaren printzipioak
- 10. art. Ekonomian txertatzea
- 11. art. Eragile publikoen erantzukizuna
- 12. art. Nazioarteko erakundeen erantzukizuna



Jarraian, oinarrizko eskubide kulturalen ondorioak identifikatzeko ariketa bat proposatzen dugu, honako elementuen arabera: dimentsioak; elkartasun-, berdintasun- eta askatasun-printzipioetatik eratorritako balioak; eskubide horiekin batera datozen

beste eskubide batzuekiko lotura; eta eskubideak garatzen laguntzeko ekintza positiboen bidezko kultura-politiken garapena. Kontuan hartu behar dira dimentsio ezberdinen arteko konexioak eta loturak.

Dimentsioak	Printzipioak eta	Lotuta dauden	Kultura-politikak
HAUTAKETA	Nortasuna Aniztasuna Pluraltasuna	Gutxiengoen eskubideak Hizkuntza-eskubideak	Ondarearen babesa Eskaintza: Askotariko programazio plurala Ikusgarritasuna: komunikabideak
SORKUNTZA	Adierazkortasuna Bizi-indarra Aitorpena Jasangarritasuna	Egile-eskubideak	Lan-baldintzak Profesionalizazioa
SARBIDEA	Demokratizazioa Emantzipazioa	Hezkuntzarako eskubidea Hizkuntza-eskubideak	Oinarrizko kultura-zerbitzuak Eskaria: Oztopoak Onurak, itzulera soziala Informazioa eta komunikazioa
PARTE-HARTZEA	Gardentasuna Gobernantza Demokrazia Erantzunkidetasuna		Kordinazioa eta lankidetzak Erabakiak hartzea eta ebaluazioa

4.2 Kulturari eta eskubide kulturaleri buruzko legeen

Eskubide kulturalen benetako garapenaren agertoki globala asko argitzen ari da azken urteetan. Análisi honetan zehar ikusi denez, aurrerapen batzuk egin dira NBE eta UNESCO erakundeen barnean, eta esan dezakegu garai ezin hobean gaudela eskubide horien edukia, irismena eta ezarpena definitzeko. Une erabakigarria da, beraz, haien etorkizunerako.

Hala egiaztatzen dute eskubide kulturaleri buruzko lege onartu berriek. Atal honetan, lau legeren gakoak aztertuko ditugu: Costaricakoa, Ekuadorrekoa, Mexikokoa eta Nafarroako Foru Komunitatekoa. Bistakoa denez, horietako hiru Latinoamerikako estatuetakoa legeak dira. Eta, estatu mailan, Nafarroa dugu eskubide kulturaleri buruzko lege bat duen lehenengo erkidegoa. Lege horiek guztiak 2016-2019 epealdian izapidetu edo onartu dira. Horrek argi eta garbi adierazten du eskubide kulturalen inguruko eztabaida puri-purian dagoela, eta botere publikoek interesa dutela eskubide horiek defendatzeko.

II. eranskinean daude arau-tresna hauen fitxa deskriptiboak.

Costa Rica

Ondorengo bi tresna hauek oinarri hartu ditu eskubide kulturalak lantzeko: Eskubide Kulturalen Nazio Politika, 2013ko abenduan onartua, eta Eskubide Kulturalen Lege Orokorren proiektua, 2016koa. Tresna horiek elkarriketa-prozesu parte-hartzaile zabal baten ondoren proposatu ziren. Prozesu horren bitartez ikusi zuten giza eskubide kulturalen egikarritza sustatu behar zela herrialdean, eta Estatuari egokitzen zitzaiola haiek bermatzeko ardura.

2014-2023 Eskubide Kulturalen Nazio Politikaren helburua da kulturaren arloko programa publikoak eta jarduerak bideratzea, koordinatzea eta artikulatzea. «Orientazio estrategikoen multzo bat definitzen du, funtsezkoak baitira askotariko herritarrek bizitza kulturean parte hartzea suspertzeko, bai eta adierazpen kulturalak benetan txertatzeko garapen soziokultural eta ekonomikoaren prozesuetan, udalerrri, eskualde eta nazio mailan».

Eskubide Kulturalen Lege Orokorra esparru juridiko bat da, eta eskubide horiek babestu eta sustatzeko berme-mekanismoak ezartzen ditu, Estatuari ahalmenak eta betebeharrak esleitzen dizkio, eta gizartearek eskubideak eta erantzukizunak ematen, sormen-prozesuak aintzat hartuta, eta kulturak herrialdearen garapen integralari mesede egiten diola onartuta.

Ekuador

2016ko abenduaren 29ko **Ekuadorreko Kulturaren Lege Organikoaren** helburua da Estatuaren eskumenak, eskuduntzak eta betebeharrak definitzea; eskubide kulturalen jarduera eta kulturartekotasuna bermatzeko politika publikoaren oinarriak ezartzea; eta ondarearen eta kulturaren esparrua kudeatzen duten instituzioak antolatzea, Kulturaren Sistema Nazionalaren funtzionamenduaren eta integrazioaren bitartez.

Kontuan hartu behar da ez dela eskubide kulturalen lege bat, baizik eta kulturari buruzko lege orokor bat, eta, halakoa izaki, Kulturaren Sistema Nazionala (VI. titulua), Memoria Sozialaren eta Kultur Ondarearen Azpisisistema (VII. titulua) eta Arteen eta Berrikuntzaren Azpisisistema deskribatzen ditu (VIII. titulua). Azken bi titulu horiek dira zabalena.

Hala eta guztiz ere, legeak, kontuan hartuzkoetan beraietan, pertsonen eskubideak eta Estatuaren betebeharrak aipatzen ditu, kultura dela eta. Era berean, NBE eta UNESCO erakundeekin sinatutako giza eskubideen eta kultura-aniztasunaren nazioarteko hitzarmenak azpimarratzen ditu.

Mexiko

Estatu mailako legerik berriena **Mexikoko Kultura eta Eskubide Kulturalen Lege Orokorra** dugu, 2017ko ekainaren 19koa. Lege horren aurrekariak Konstituzioaren 4. eta 73. artikuluen erreformak dira, 2009. urtean indarrean sartu zirenak eta «kulturara iristeko eskubideari» eta «eskubide kulturaleri» buruzko aipamenak barne hartu zituenak, giza eskubideekin eta Estatuak eskainitako ondasun eta zerbitzu kulturalak eskuratzeko herritar orok duen eskubidearekin zerikusia dutenak. Aipatutako legea lehentasunezko zatia jo zuten kohesio soziala, bakea eta bizikidetzaren harmoniatza indartzeko mexikarren artean. Modu horretan, tresna bat sortu zuten, kulturarako giza eskubidea babestu eta bermatzeko politika publikoa instituzionalizatuzko.

Era berean, 2018an, alor bereko **Erregelamendu** bat onartu zuten, hauek arautu zituen: pertsona ororen kulturarako eskubidea, eskubide kulturalen egikaritzaren sustapena eta babesa, eta Estatuak eskainitako ondasun eta zerbitzu kulturalak eskuratzeko koordinazio-oinarriak. Bereziki, kultura-kupoiak esleitzeko programa bat landu zuen eta pertsona ororen eskubide kulturalak garatu, norbanakoarenak zein kolektiboak.

Nafarroako Foru Komunitatea

2019ko urtarrilean, Nafarroako legebiltzarrak **1/2019 Foru Legea** onartu zuen, Nafarroako eskubide kulturaleri buruzkoa, zeina aitzindaria izan baita Estatuak eta Europako ordenamendu juridikoaren mailan. Lege horrek erantzuna ematen dio eskaera sektorial bati, erakunde publikoei egin baitzieten, eskubide kulturalen arloko lege-tresnak gara zitzan. Praktikan, kultura-politiken arau-esparruaren zatiketa ekiditeko saiakera bat da.

Hitzaurreak jasotzen duenez, «Horrenbestez, foru-lege hau kulturarako eskubidetik eskubide kulturaletarako aurrerapausoa da, eta lagungarria izanen da eskubide horiek giza eskubide gisa erabil daitezten, eta kulturarako nahiz sorkuntza artistikorako irispidea izateko eta bizitza kulturalean parte hartzeko aukerak unibertsalak izan daitezten; orobat, sormen gaitasunerako pizgarri eta arte adierazpenetarako babes izanen da, eta babesa eta aitortza emanen dizkie kultura-arloko langile direnen eta kultura- eta sorkuntza-industrietako ekintzaileen zereginari».

Jarraian, legearen gai nagusiak nabarmentzen dira:

- Kulturarako **irispidea** izateko eskubideari dagokionez, legeak irispide fisikoa eta irispide birtualaren arteko bereizketa egiten du, azken horri garrantzi handia emanez. Era berean, kultur bitartekaritzako prozesuak sartzen ditu (1. kapitulua).
- **Kultur adierazpenetarako** irispideari dagokionez, nabarmentzekoak dira ondareari lotutako ondasunak eta zerbitzuak eta kultur eta sorkuntza ekosistemari egindako aipamena (2. kapitulua).

- Bizitza kulturalean **parte hartzeari** dagokionez, erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzeko bideak zehazten dira (3. kapitulua).
- **Sorkuntzari** dagokionez, sorkuntzarako eta ikerketarako askatasunari eta egile eskubideei egindako aipamenez gain, ikerketa zientifikoa bultzatzen da (III. titulua).
- Administrazio Publikoen **ardura edo erantzukizunei** dagokienez, gardentasuna eta jardunbide egokiak nabarmentzen ditu, administrazioen arteko koordinazioa eta elkarlana, bai eta kultura-sarearekikoa ere. Ildo horretatik, esanguratsuak dira kultur sektoreetan lan egiten duten pertsonen profesionalizazioa bultzatzeko neurriak, eta horiek politiken definizioan eta ebaluazioan parte hartzea bultzatzekoak (IV. titulua).
- V. titulua Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluari buruzkoa da eta haren eginkizunak eta osaera deskribatzen ditu.
- VI. tituluak **finantza- eta tributuzko xedapenak** ditu xede eta onura fiskalei buruzko atal berezi bat dauka.
- Sailak kultura-arloan emango dituen prestazioak **zerbitzu-gutunen** bitartez zehaztuko dira, foru-lege hori indarrean jarri eta urtebeteko epean onartu beharko direnak.

4.3 Aplikaziorako alderdi funtsezkoak

Aurrekoa ikusita, zilegi da galdetzea zer ekarpen egiten duen eskubide kulturalari buruzko lege batek. Izan ere, arautzeko esparru konplexu bat da, eta aplikatzeko zailtasunak daude, kultura-politiken hausnarketan eta eztabaidan aurrerapenak lortu diren arren. Galdera erabilgarritasun terminoetan planteatzen da. Eskubide kulturalari buruzko lege batek zertarako balio duen erantzuteko, hiru argudio erabili daitezke:

- Egitura-argudioak defendatzen du kultura-arloko jarduketan **antolamendu orokorra** eskaintzeko balio duela. Eskubide kulturalak multzokatu eta artikulatzen ditu, eta sakabanatzea saihesten. Aztertu diren kasuetan egiaztatu denez, legeok ezarrita dauden sistema kulturala deskribatzen dute. Izaera orokorreko bokazio horrek zehaztasun falta eragin dezake. Hortaz, geroago garatuko diren arauak konpromisoak zehaztu beharko dituzte, horiek bermatzeko.
- Giza eskubideei egiten dion ekarpenari buruzko argudioak adierazten du baliagarri izango dela **arreta eskubide kulturaletan jartzeko**, bigarren mailakotzat hartzen baitira beste batzuekiko. Izan ere, eskubideak zatiezinak eta unibertsalak direla azpimarratu behar da; hots, eskubide kulturalik gabe ez dagoela giza eskubiderik. Lege bat onartzeak esan nahi du akordio bat lortu dela sarri lehentasun politikoetan baztertutako gai batean.
- Argudio juridikoak adierazten duenez, administrazio publikoek **arau esparru** bat eskaintzeko eta eskubide kulturalak betetzera eta zaintzera bideratutako konpromisoa hartzeko balio duela. Lege-adibideetan ikus daitekeenez, lurralde bakoitzak bere berezitasunetan jartzen du arreta: Costa Ricak aniztasunean eta herri indigenen eskubideetan; Mexikok kohesio sozialean, bakean eta bizikidetzaren harmoniatsuan; Ekuadorrek Kulturaren Sistema Nazional baten antolaketan; eta Nafarroak ondarean, irispide birtualean eta partaidetzan.

Gauzak horrela, eskubide kulturalen lege batek izan beharko lituzkeen funtsezko alderdiak identifikatzera eramaten gaitu hausnarketak.

- Eskubide kulturalen alderdi nagusia irispiderako eta partaidetzarako eskubidea da. Hala xedatzen du NBERen EESK Batzordearen 21. Oharrak, hiru ikuspuntu zehaztuta: askatasuna, irispidea eta ekarpena. Arazo horretatik artikulatu beharko litzateke, hain zuzen.
- Eskubide horiek betetzea ahalbidetzeko sistema kultural bat antolatzea aurreikusi beharko luke legeak.
- Legeak barne hartu beharko lituzke finantzaketarako mekanismoak, haren aplikazioa bideragarri egiteko, aplikazio eraginkorrik gabeko adierazpen bihurtu ez dadin.

Baina, horrez gain, nazioarteko erakundeek eskubide horiek era progresiboan aplikatzea gomendatzen duten arren, gutxieneko konpromiso batzuk hartzen ez badituzte, edukirik gabe gera daitezke. Beraz, aurrekoari honako hauek gehitu beharko litzazkioke:

- Administrazio publikoen gutxieneko betekizunak eskubide kulturalen alorrean, eskaintzaren eta zerbitzu kulturalen orekaren bila. Ere horretan, ondarea da, agian, kultura-sektore tradizionalen artean onura gehien lortzen dituenak, eskubide kulturalari buruzko testuetan egiten dioten berriazko aipamenak kontuan hartuta. Ez da ahaztu behar eremu edo alor horrek duela arau-garapenik handiena bere babes eta defentsarako. Kultura-politiken erronka, hortaz, horrenbeste mugarrizatu gabeko alorrean dago, sorkuntzarekin eta herritarren jardunbide kulturalarekin lotutako zerbitzuak garatu ahal izateko. Kontua ez da soilik sorkuntza- eta aukera-askatasuna bermatzea, baizik eta eskubide horiek bere osotasunean baliatzeko baldintzak erraztea eta bultzatzea ere bai.
- Ekintza positiboak, herritarren irispide eraginkorri traba egiten dioten oztopoak ezabatzeko, kontuan hartuta gutxiengoan eta desberdintasun- edo desporekotasun-egoeran dauden pertsonen eskubideak, NBERen oharrek adierazitakoaren ildotik, bai eta espresuki oharretan adierazten ez diren beste

oztopo batzuk ere, kulturara berdintasunean iristea mugatzen dutenak, hala nola lurraldearekin eta hurbiltasunarekin, kapital kulturalarekin eta maila ekonomikoarekin zerikusia dutenak. Esparru digitalak, kulturarako irispiderako aukera gehiago eskaini arren, beste haustura berri batzuk dakartza, eta hausnarketa egin behar da horiei buruz. Egin-eginean ere, eskubideen laugarren belaunaldi deritzonaren jomuga dira.

- Jasangarritasuna bultzatzeko neurriak, artisten lan-baldintzak, egile eskubideak, garapen profesionala eta sektore kulturalaren gaikuntza zaintzeko helburuarekin. Nekez hitz egin daiteke eskubide kulturalari buruz ekosistema kulturalaren inguruabarrak kontuan hartu barik.
- Sistema kulturalaren finantzaketa jasangarria bermatzeko konpromisoak. Bitartekorik gabe, ezinezkoa da garapena. Agindu bereziaren hamargarren urteurrenaren txostenak adierazten duenez, «arazo betierekoa da kulturaren sektorerako funtsik ez izatea munduko eskualde guztietan. Ezin da benetako aurrerapenik lortu eskubide kulturalen alorrean finantzaketa nahikorik ez badago; hau da, behintzat, UNESCOk zehaztutakoaren arabera, kulturara guztizko gastu publikoaren % 1 ez bada bideratzen». Gure testuinguruan kopuru hori gainditzen dugun arren, eskubide kulturalen garapenak konpromisoak eskatzen ditu, gorabehera politikoetatik eta ekonomikoetatik at.



5_ Ondorio gisa

Eskubide kulturalen aplikazioari buruzko hausnarketaren barnean, beharrezkoa da eskubide horiek zehazteko ahalegin bat egitea, haien gaitasun eraldatzailea bermatuko bada. Ondorengo dekalogoak funtsezko alderdiak laburbiltzen ditu, eskubideok guztiz egikaritzeko ekintza positiboetan goiburutzat hartu beharrekoak.

1. **Kultura-politika.** Eskubide kulturalak kultura-politikaren ardatz axiomatikoa osatzen dute. Funtsezko eskubideak diren aldetik, garatuko badira, kulturari politika-ikuspegi batetik begiratzea eskatzen dute. Ezin izango lirateke baliatu kultura-politika baten inguruko ekintza positiboen multzorik ez balego.
2. **Legeria.** Eskubide kulturalari buruzko legeriaren ekarpena hiru alderditan laburbildu daiteke: kultura-arloko jarduketa ezberdinen antolamendu orokorrerako esparru bat eskaintzen du; eskubide kulturalak erdigunean kokatzen ditu, giza eskubideen berme gisa; eta eskubideok betetzea bermatzen duen arau-esparru bat eskaintzen du.
3. **Mapa.** Eskubide kulturalak bultzatzeko politika aktiboak gauzatu ahal izateko, herritarren kultura-beharrei buruzko mapa bat egin behar da, ezaugarri sozioekonomikoen eta hezkuntza- eta lurralde-ezaugarrien arabera.
4. **Zerbitzuak.** Eskubide kulturalak baliatzeko, eskura izan beharko dira pertsona guztien arteko berdintasuna bermatuko duten gutxieneko zerbitzu batzuk, kulturaren sorkuntza, ekoizpen eta zabalkundearekin lotuta daudenak.
5. **Hezkuntza.** Prestakuntza dugu ezagutzarako giltzetako bat, kultura praktikatu eta disfrutatu ahal izateko. Politika aktiboak behar dira pertsonen kapital kulturala sustatzeko, hala hezkuntzaren zerbitzuetatik nola zerbitzu eta programa kulturaletatik.
6. **Aurrekontuak.** Politikan, konpromisoak aurrekontuetan gauzatu ohi dira. Botere publikoek konpromisoa hartu behar dute gutxieneko ahalegin bat egiteko kulturaren alorrean, egonkortasuna emateko eskubide kulturalen betetzeari.
7. **Oztopo psikologikoak.** Batzuetan, kulturarako irispiderik ezaren arrazoiak da pertsonen uste izatea, arrazoi psikologikoak medio, kultura ez dagokiela. Herritarren aniztasuna gero eta handiagoa den honetan, premia da lan proaktibo bat, hurbiltasuna bultzatzeko, erakundeekiko harremanak errazteko, bai eta parte izatearen sentimenduak eta komunitatearen eraketa indartzeko ere.
8. **Generoa.** Berehala aplikatzeko gutxieneko betekizunetako bat da generoen arteko diskriminaziorik eza eta berdintasuna bermatzea, pertsona ororen bizitza kulturean parte hartzeko eskubideari dagokionez. Eskubide kulturalak aplikatzeko hasierako premisetako bat da.
9. **Adinak.** Pertsonen bizi-zikloak haien kultura-premiak baldintzatzen ditu. Botere publikoek premia horiek aztertu behar dituzte, komunitatearen inguruabarrei egokitzen zaizkien zerbitzuak eskaini ahal izateko, garrantzi berezia emanda haurrei eta adineko pertsoneri.
10. **Denbora.** Denborarik eza da bizitza kulturean parte hartzeko oztopo aipatuenetako bat. Pertsonen bizi-erritmoa kontuan hartzen dituzten zerbitzuak behar dira, zaintzaren ondoriozko mugapenak ere aintzat hartzen dituztenak, eta hauei erreparatu behar zaie, besteak beste: ordutegiari, proposamen artistikoen iraupenari...

Eranskinak

I. eranskina. Eskubide kulturalak arau-tresna orokorretan

	NBE		Europar Batasuna	Estatu maila		
	Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna	Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna	Espainiako Konstituzioa	Euskadiko Autonomia Estatutua	Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea
Bizitza kulturalen parte hartzeko	<p>27. artikulua. 1. Pertsona orok du eskubidea komunitateko kultura-ekitaldietan aske parte hartzeko, artelanez gozatzeko, eta zientzia-aurrerakuntzan eta horri darizkion irabazietan parte hartzeko.</p>	<p>15. artikulua. 1. Itun honetako estatu alderdiek aitortzen dute pertsona ororen eskubidea: a) Bizitza kulturalen parte hartzeko; 2. Eskubide horren erabateko egikaritza ziurtatzeko, itun honetako estatu alderdiek hartu beharko dituzten neurrien artean izango dira beharrezkoak direnak zientzia eta kultura kontserbatu, garatu eta hedatzeko.</p>		<p>44. artikulua. 1. Botere publikoek kultura eskuratzea bultzatu eta babestuko dute, guztiek baitute kulturarako eskubidea.</p> <p>48. artikulua. Gazteriak garapen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen parte-hartze aske eta eragingarria izan dezan, botere publikoek behar bezalako inguruabarrak bultzatuko dituzte.</p>	<p>9. artikulua. EAEko aginte publikoek, beren eskumen eremuan: E) EAEko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute.</p>	



	NBE		Europar Batasuna	Estatu maila		
	Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna	Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna	Espainiako Konstituzioa	Euskadiko Autonomia Estatutua	Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea
Sormen-askatasuna		<p>15.3. artikulua. Itun honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, ikerketa zientifikorako eta sormen-jarduerarako behar den askatasuna errespetatzeko.</p>	<p>13. artikulua.- Arteetako eta zientzietako askatasuna Askatasunez jardun daiteke artegintzan eta zientzia-ikerketan. Katedra-askatasuna</p>	<p>20. artikulua. 1. Hurrengo eskubideak aitortu eta babesten dira: a) Pentsamenduak, ideiak eta iritziak hitzez, idatziz nahiz beste edozein bidetatik askatasunez azaldu eta zabaltzeko. b) Ekoizpen eta sorkuntza literario, artistiko, zientifiko eta teknikorako. c) Katedra-askatasunerako. d) Edozein hedabidetatik askatasunez egiazko informazioa komunikatu edo jasotzeko. Legeak kontzientzia klausularako eta lanbide sekreturako eskubideak arautuko ditu, askatasun horiek egikaritzeko orduan. 2. Eskubide hauen egikaritzea ezin da inola mugatu alde aurretiko zentsuraren bidez.</p>		



	NBE		Europar Batasuna	Estatu maila		
	Giza Eskubideen Adierazpen Unibertuala	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna	Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna	Espainiako Konstituzioa	Euskadiko Autonomia Estatutua	Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea
Jabetza intelektualaren eskubideak	27.2. artikulua. Zientzia, literatura edo arte mailan egindako lanen egile diren pertsona guztiek dute horregatik dagozkien interes moral eta materialak babes dakizkien eskubidea.	15. artikulua. 1. Itun honetako estatu alderdiek aitortzen dute pertsona ororen eskubidea: c) Interes moral eta materialen inguruko babesaren onuradun izateko, interes horiek eratortzen direnean ekoizpen zientifiko, literario edo artistikoen egile izateagatik.	17. artikulua. Jabetza eskubidea 1. Pertsona orok du lege barruan eskuratu dituen ondasunen jabetzaz gozatzeko eskubidea, eta ondasunok erabili, baliatu eta legatzekoa. Inori ere ezin zaio bere jabetzarik kendu, onura publikorako denean izan ezik; hala ere, legean aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan izango da, eta trukean, arrazoizko epe baten barruan, ondasunak galtzeagatik kalte-ordain zuzena emanda. Ondasunen erabilera legez arautu ahal izango da, interes orokorrerako beharrezkoa den heinean. 2. Babestu egiten da jabetza intelektuala.	149.1. artikulua. Honako gai hauek estatuaren eskumen eskusibokoak dira: 9. Jabetza intelektualari eta industrialari buruzko legegintza.	12. artikulua. Euskal Herriko Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuaren legeria betearaztea honako gai hauetan: 4. Jabetza intelektuala eta industrialak.	



	NBE		Europar Batasuna	Estatu maila		
	Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna	Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna	Espainiako Konstituzioa	Euskadiko Autonomia Estatutua	Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea
Kultura-zerbitzuak				<p>149.2. artikulua. Autonomia-erkidegoek bereganatu ahal dituzten eskumenei kalterik egin gabe, estatuarentzat eginbeharra eta oinarrizko aginpidea izango da kultura-zerbitzua, eta autonomia-erkidegoen artean kultura-harremanak erraztuko ditu, horiekin ados jarrita.</p> <p>148.1.17. artikulua. Honako gai hauetan hartu ahal izango dituzte eskumenak beren gain autonomia-erkidegoek: Kultura, ikerkuntza eta, hala denean, autonomia-erkidegoko hizkuntzaren irakaskuntza sustatzea.</p>	<p>10. artikulua. Eskumen eksklusiboak: 17. Kultura, Konstituzioaren 149.2 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe. 18.- Arte Ederren sustapenari eta irakaskuntzari lotutako erakundeak. Eskulangintza. 38.- Ikuskizunak. 39.- Komunitatearen garapena. Emakumeen egoera. Haur, gazte eta adinekoen aldeko politika.</p>	<p>25 artikulua. Eskumenak m) Kulturaren eta kultura-ekipamenduen sustapena.</p> <p>26. artikulua. Zerbitzuak ematea b) 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan, lehengoz gain: herriko parkea, liburutegi publikoa eta hondakinen tratamendua.</p>



	NBE		Europar Batasuna	Estatu maila		
	Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala	Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna	Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna	Espainiako Konstituzioa	Euskadiko Autonomia Estatutua	Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea
Kultur ondarea				<p>46. artikulua. Botere publikoek bermatuko dute Espainiako herrien ondare historiko, kultural eta artistikoa zaindu eta aberastea, bai eta ondareon ondasunena ere, horien araubidea eta titulartasuna edozein izanda. Zigor-legeak zehatuko ditu ondare horien kontrako atentatuak.</p>	<p>10. artikulua. Eskumen eskusiboak: 19.- Historia, arte, monumentu-, arkeologia- eta zientzia-ondarea, Autonomia Erkidegoak bere gain harturik ondare hori desjabetzearen eta lapurretaren aurka babesteko Estatuak ezar ditzan arau eta betebeharrak betetzea. 20.- Estatuaren izenean ez dauden artxibategi, liburutegi eta museoak.</p>	

II. eranskina: Eskubide kulturalari buruzko legeen analisia

COSTA RICA: ESKUBIDE KULTURALEN LEGE OROKORRAREN PROIEKTUA (2016)

AZALPENA. Herrialde honek ondorengo bi tresnak oinarri hartu ditu eskubide kulturalak babesteko: Eskubide Kulturalen Nazio Politika, 2013ko abenduan onartua, eta Eskubide Kulturalen Lege Orokorren proiektua.

ESKUBIDE KULTURALEN DEFINIZIOA. «Pertsonak eta komunitateak kulturarako irispidea izatea eta nahi duten kultura parte hartu ahal izatea bermatzeko eskubideak dira. Funtsean, giza eskubideak dira, kultura eta haren osagaien gozamina bermatzekoak, betiere, berdintasun-baldintzetan, giza duintasuna errespetatuz eta inor baztertu gabe. Besteak beste, gai hauekin zerikusia dute eskubide kulturalak: hizkuntza, ekoizpen kulturala eta artistikoa, kultura parte hartzea, kultura-ondarea, egile eskubideak, gutxiengoak eta kultura-irispidea, edozein dela talde etnikoa, kulturala, linguistikoa, erlijioa, egoera sozial eta ekonomikoa, iritzi politikoa, desgaitasuna edo beste edozein baldintza diskriminatzaile».

II. kapituluak arautzen dituen **eskubide kulturalak**:

- Bizitza kulturean askatasunez parte hartzeko eskubidea (10. art.)
- Bizitza kulturalerako irispide eraginkorrerako eskubidea (11. art.)
- Bizitza kulturalari ekarpena egiteko eskubidea (12. art.)
- Adierazpen kulturalaren askatasunerako eskubidea (13. art.)
- Informaziorako eta komunikaziorako eskubidea (14. art.)
- Diskriminazio eta bazterketa kasuetan babesa jasotzeko eskubidea (15. art.)
- Praktika kultural partikularrak gauzatzeko talde espezifikoen eskubidea (16. art.)

NABARMENTZEKOAK. Azaldutako eskubide kulturez gain, nazioarteko arau-testuekin bat baitatoz, IV. kapituluak herri indigenen eskubideak azpimarratzen ditu, haien ekarpen kulturala aintzat hartuz, nazionalitatearen funtsezko elementu gisa.

EKUADOR: EKUADORREKO KULTURAREN LEGE ORGANIKOA (2016)

AZALPENA. Lege horren helburua da Estatuaren eskumenak, eskuduntzak eta betebeharrak definitzea; eskubide kulturalen jardura eta kulturartekotasuna bermatzeko politika publikoaren oinarriak ezartzea; eta ondarearen eta kulturearen esparrua kudeatzen duten instituzioak antolatzea, Kulturearen Sistema Nazionalaren funtzionamenduaren eta integrazioaren bitartez.

ESKUBIDE KULTURALEN DEFINIZIOA. Kontuan hartuzkoetan jasota daude, estatuak sinatu dituen nazioarteko hitzarmenen aginduei jarraikiz. Bereziki aipatzen dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, Ondare Ukiezinari buruzko Hitzarmena eta Kultura-adierazpenen aniztasuna babesteko eta sustatzeko UNESCOren konbentzioa.

Sartzen diren eskubide kulturalak II. titulukoak, eskubide, betebeharrak eta politika kulturalari buruzkoak, 5. art.:

- Kultura-nortasuna.
- Antzinako jakintzen eta kulturarteko harremanen babesa.
- Antzinako hizkuntzen eta kulturarteko harremanetarako hizkuntzen erabilera eta aintzatespena.
- Gizarte-memoria.
- Sormen-askatasuna.
- Ondasun eta zerbitzu kulturetarako eta ondare-zerbitzuetarako irispidea.
- Arte-, kultura- eta ondare-prestakuntza.
- Espazio publikoaren erabilera eta gozamina, eta hartarako sarbidea.
- Ingurune digitala.
- Atzerriko pertsonen eskubide kulturalak.
- Mugikortasun egoeran dauden pertsonen eskubide kulturalak.
- Zerbitzu kultural publikoak erabiltzeko eskubidea.

NABARMENTZEKOAK. III. tituluak, informazio kultureko sistema integrala azaltzen da; IV. tituluak, arte, kultura eta ondareari buruzko hezkuntza eta prestakuntza; eta V. tituluak, sektore kulturala lan-erregimenean eta gizarte-segurantzaz sartzeari buruzkoak.

MEXIKO: MEXIKOKO KULTURA ETA ESKUBIDE KULTURALEN LEGE OROKORRA (2017)

AZALPENA. Elkarrizketa zabal baten ondoren osatu zuten eta kulturaren funtsezko alderdiak barne hartzen ditu; bereziki, ondare kulturala eta materiala. Senatuak defendatu zuen bezala, lege horrek kultura nazionala eta parte izatearen sentimendua indartzen dituen tresna instituzional bat eskaintzen du, aniztasun esparru batean, eta beste urrats bat ematen du pertsona guztiek eskubide kulturalak eskura izan ditzaten. Argi eta garbi ezartzen ditu aniztasuna, nortasuna eta kulturen berdintasuna bermatzeko eta mantentzeko mekanismoak, herrialdeko sortzaileen, ekoizleen eta kultura-erakundeen zuzendarien lanaren gaineko ikuspegi arduratsuan oinarrituta.

ESKUBIDE KULTURALEN DEFINIZIOA. Pertsona orok baliatuko ditu bere eskubide kulturalak, dela banaka dela taldean, edozein dela ere haren jatorri etniko edo nazionala, generoa, adina, desgaitasuna, egoera soziala, osasun-egoera, erlijioa, iritzia, orientazio sexuala, egoera zibila, etab., eta aipatu eskubideetarako iristeko aukera berberak izango ditu.

Sartzen diren eskubide kulturalak 11. artikulua eskubide kulturei buruzko dekalogo bat xedatzen du biztanle guztientzat:

- Kultura eta estatuak arlo horretan eskaintzen dituen ondasun eta zerbitzu guztiak eskura izatea;
- Lurralde nazionalan eta beste komunitate, herrialde eta nazio batzuetan garatu eta garatzen diren kulturen ondare materialari eta immaterialari buruzko informazioa eta ezagutza eskura jartzea;
- Askatasunez aukeratzea nortasun kultural bat edo gehiago;
- Komunitate kultural bat edo gehiagoren parte izatea;
- Kulturaren modu aktibo eta sortzailean parte hartzea;
- Norberaren gustuko adierazpen kulturalak gozatzea;
- Norberak aukeratzen duen hizkuntzan komunikatzea edo ideiak adieraztea;
- Mexikoko estatuaren babesa izatea, egile eskubideak direla eta, edo produkzio zientifiko, literario edo artistikoen egile izateagatik dagozkion interes moral eta ondarezkoak direla eta,

- Informazioaren teknologia eta komunikazioak erabiltzea eskubide kulturalak gauzatzeko, eta
- Konstituzioan edo Mexiko parte den nazioarteko itunetan ezarritako gainerako eskubideak.

Horrez gain, legeak 12. artikuluan adierazten du ezen, eskubide kulturalak bermatzeko, administrazio publikoek hauek sustatu eta bultzatu beharko dituztela:

- Kohesio soziala, bakea eta biztanleen arteko elkarbizitza harmoniatsua;
- Liburutegi publikoetarako irispide askea;
- Mexikoko nazioaren eta beste nazio batzuen kulturarekin zerikusia duten dokumentuen irakurketa eta dibulgazioa;
- Behar adina hitzarmen egitea erakunde pribatuekin, zerbitzu eta ondasun kulturalak baliatzeko deskontuak lortzearen;
- Doako ekitaldi artistiko eta kulturalak egitea agertoki eta plaza publikoetan;
- Mexikoko adierazpen eta sorkuntza artistikoak eta kulturalak sustatzea;
- Kultura nazionala atzerrian bultzatzea;
- Hezkuntza, audientzien prestakuntza eta ikerkuntza artistiko eta kulturala;
- Azpiegitura kulturalaren aprobetxamendua, horren erabilera intentsiboa egiteko espazio eta zerbitzu egokiekin;
- Kulturarako irispide unibertsala, informazioaren teknologien eta komunikazioen baliabideak baliatzeko,
- Desgaitasuna duten edo ahultasun- edo indarkeria-egoeran dauden pertsonen eta gizataldeen inklusioa.

NABARMENTZEKOAK. Azpimarra egin dute eskubide kulturalak betetzea bermatzeko koordinazio mekanismo eta politika positiboetan. Legeak dioenez, «Estatuaren erakundeei dagokie politika publikoak ezartzea, baliabide instituzionalak sortzea, azpiegitura fisikoa erabiltzea eta erabilgarri edukitzea eta, baliabide finantzarioak, materialak eta giza baliabideak aplikatzea eskubide kulturalak eraginkortasunez gauzatzeko». Horrez gain, erakundeen eta kultura-eragileen arteko koordinazio-mekanismoak definitzen ditu, bai eta Kulturako Idazkaritzaren eginkizuna eta

sinatuko diren akordioen zehaztapenak. Halaber, Legeak zehaztu egiten du informazio kulturalaren sistemaren eta kulturaren biltzar nazionalaren funtzionamendua. Legearen erregelamendua kultura-kupoiak esleitzeko programan zentratzen da, bereziki, eta gehiago zehazten ditu pertsona ororen eskubide kulturalak, norbanakoarenak zein kolektiboarenak.

NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA:

1/2019 FORU-LEGEA, NAFARROAKO ESKUBIDE KULTURALEI BURUZKOA

AZALPENA. Hitzaurreak jasotzen duenez, «Horrenbestez, foru-lege hau kulturarako eskubidetik eskubide kulturaletarako aurrerapausoa da, eta lagungarria izanen da eskubide horiek giza eskubide gisa erabil daitezten, eta kulturarako nahiz sorkuntza artistikorako irispidea izateko eta bizitza kulturean parte hartzeko aukerak unibertsalak izan daitezten; orobat, sormen gaitasunerako pizgarri eta arte adierazpenetarako babes izanen da, eta babesa eta aitortza emanen dizkie kultura-arloko langile direnen eta kultura- eta sorkuntza-industrietako ekintzaileen zereginari».

Eskubide kulturalen definizioa. I. tituluak legearen «filosofia» deskribatzen du. Horretarako, hura inspiratzen duten printzipioak eta administrazio publikoek neurri positibo eta zuzenekin bermatu eta sustatu behar dituzten eskubide kulturalak zehazten ditu. Hauek dira oinarritzko printzipioak:

- Pertsona guztiek kulturarako irispidea izatea eta bizitza kulturean libreki parte hartzea erraztera bideratutako ekintzak sustatu eta betetzea.
- Kultur aniztasuna eta norberaren kultur identitatearen hautatze librea errespetatzea eta inklusioaren eta kulturarteko harremanen sustapena.
- Nafarroako kultura-ondare materiala eta immateriala babestea, zaintzea, ezagutaraztea eta balioan jartzea.
- Errespetatzea adierazpenerako eta sorkuntza artistikorako askatasuna eta ekoizpen eta sormen lanetatik eratorritako eskubide moralen eta ondare-eskubideen gozamena.

Sartzen diren eskubide kulturalak Eskubide kulturalak honako balio hauetan oinarritzen dira: askatasuna, kultur aniztasuna, genero-berdintasuna, diskriminazio eza, pluralismoa, kohesio soziala, eskuragarritasuna eta garapen jasangarria. Eta honela zehazten dira:

- Norberaren kultur identitatea libreki aukeratzeko, kultur erkidego bateko kide izateko nahiz ez izateko, eta aukeratze hori errespetatua izateko eskubidea.
- Kultura-aniztasunerako eskubidea eta kultura-komunitate bateko edo batzuetako kide izatea nahiz ez izatea aukeratzeko eskubidea.
- Iritzi askatasuna eta norberak aukeratutako hizkuntzazko adierazpenerako askatasuna izateko eskubidea, ezertan ukatu gabe Nafarroako hizkuntza ofizialen gaineko araudian xedatutakoa.
- Kulturarako irispidea eta Nafarroako Administrazio Publikoek eskaintzen dituzten ondasun eta zerbitzu kulturaletarako irispidea izateko eskubidea.
- Ekoizpen eta sorkuntza literario, artistiko, zientifiko eta teknikorako eskubidea eta talentuaren eta sormenaren garapenerako, bai eta horien emaitzak zabaltzea eta banatzekoa ere.
- Bizitza kulturean norberak aukeratutako jardueren bidez libreki parte hartzeko eskubidea, norberaren praktika kulturalak gauzatzekoa, sormenez jokatzekoa eta sormen-jardueretan parte hartzekoa.
- Foru-lege honek aitortzen dituen eskubideetan eragina izan dezaketen erabakiak hartzeko prozesu garrantzitsuetan modu aktibo eta informatuan libreki parte hartzeko eskubidea.
- Nafarroako kultura-ondare material eta immaterialerako irispidea libreki eta parekotasunez izateko eskubidea, ondare horren titulartasuna zein den ere, bai eta hartaz gozatzekoa ere, eta norbere komunitatearekin elkarlanean aritzeko eskubidea, ondare hori berreskuratu, ikertu, babestu, zaindu, zabaltzea, balioan jarri eta sustatzeko zereginetan.
- Herri kulturak eta kultura tradizionalak ezagutzeko eskubidea.
- Memoria kulturala eta historikoa berreskuratzeko eskubidea.
- Foru lege honetan aitortzen diren kultur eskubideak eraginikortasunez erabiltzeko garrantzitsua den informazio guztia jasotzeko eskubidea, bai eta kulturaren arloko informazioa eskatzekoa ere, gardentasunaren eta informazio publikorako irispidearen gaineko araudian ezarritako baldintzetan.
- Kultur informazioa sortu eta zabaltzeko eskubidea.
- Norbere literatur-, arte- eta zientzia-lanetatik eratorritako eskubide moralak eta ondare-eskubideak babestuta izateko eta haietaz gozatzeko eskubidea, arloaren gaineko araudiarekin bat.



NABARMENTZEKOAK. Eskubide kulturalakiko konpromisoa eta ambizioa, eta horiek jasotzea Europan alor horretan onartutako legeetan lehen den horretan. Legearen hiru bereizgarri azpimarratzea: erabakietan parte hartzea, irispide birtualaren garrantzia eta, aurrekontu- eta finantza-arloko xedapenen aipamena. Horrez gain, lege horrek bere egiten ditu txosten honetan aipatu nazioarteko arauetan jasota dauden manuak, printzipioak eta eskubideak.





Eskubide kulturalak



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA